

txintxarri



Rocioko erromeria koloretsua

Rocioko Ama birjinaren omenez erromeria ospatu dute, Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak antolatuta. / 8-9

TXINTXARRI

Martijaren omenez

Jose Martijaren lana aitortu dute, gaztetxoan arteko futbol txapelketa eginez Lasarte-Orian / 12

Lasarte-Oriako udalbatzarrak Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko gurasoen eskakizunekin bat egin du / 2

Astebeteko baraualdia hasi dute sei lagunek, Zubietako errauste plantaren aurka protesta egiteko / 4



Ikasi eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko

aek

UDAKO ESKAINTZA 2017

EUSKARA IKASTAROAK

B2 eta C1 mailak prestatzeko
100 orduko klaseak (uztailak 5 - irailak 14)
Egunean 4 orduz



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK / INTENSIVOS
Aprende euskara cerca de casa
Azterketak prestatzeko
ON-LINE IKASTAROAK ERE BAI!



2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO



FAMILIA BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

Muntteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea, 17 behea
20160 Lasarte-Oria
943 37 28 63 - lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com.es



Zumaburuko gurasoak joan den asteko udalbatzarrean, Hezkuntza sailaren aurka protesta egiten. TXINTXARRI

Udalbatzarra, gurasoekin bat

Zumaburuko gurasoen elkarteak aurkeztutako mozioa aho batez onartu du Lasarte-Oriako udalbatzarrek: udalak Hezkuntza sailari eskatuko dio eraikinaren lanak amaitu artean arauak betetzen dituen zentro batean egokitzeko haurrak

Adrian Garcia

Lasarte-Oriako udal batzordeak aho batez babestu du Burunzpe Gurasoen Elkarteak aurkeztutako mozioa, eta bere egin ditu Sasoeta-Zumaburu ikastetxe publikoko gurasoen eskakizunak: udal gobernua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari eskatuko dio ikastetxe horretako haurren egoera konpontzeko datorren ikasturterako. Izan ere, Sasoeta-Zumaburuko Haur Hezkuntzako ikastetxeko lanak direla eta, haurrak bi zentrotan banandu dituzte, eta, gurasoek salatu dutenez, behin-behinean egokitu duten azpiegitura hori kaltegarria da haurrentzako: hezkuntzarako eta garapen sozialerako traba izateaz gainera, segurtasunaren aldetik arriskutsua ere bada.

Gurasoek beraiek parte hartu dute astearteko ohiko biluran, eta azken urtebetean haurrek

sufritutako gabeziak kontatu dituzte. *Hezkuntza saila ez da gai* irakur zitezkeen afixak eramada, haserre kargu hartu diete EAJko udal ordezkari, Gema Gonzalez de Txabarri Hezkuntza sailaren Gipuzkoako ordezkariaren "soka berekoak" izateagatik: "Lotsagarria da gurasoek Hezkuntza sailaren lana egin behar izatea. Bi urte igaro dira, eta oraindik hemen gaude arazoa konpontzeko". Gurasoen ustetan, Eusko Jaurlaritzaren "axolagabekeriak" ikastetxe publikoei egiten die kalte.

Berez, hilabete gutxitan konponduta behar zukeen Zumaburuko eraikinak. Behin-behinean HH2 eta HH3ko haurrak Sasoetara eraman zituzten; hezkuntza maila bererako haurrak banantzeaz gainera, Sasoetako gela bakoitzeko haur kopurua

erruz igo da (ia 500 haurrentzako gelak erdira murriztu dituzte). Bestalde, HH4 eta HH5koak euskaltegi zaharrea daude; eraikin hori ez dago egokituia lehen hezkuntzako haurrentzat.

Lanak, luzerako

Haatik, hasiera batean uste zena baino okerrago dago Zumaburuko eraikinaren egitura, eta egoerak betikotzeko arriskua du. 571.000 eurokoa da lanen lizitazioaren prezioa, eta, hortaz, obra handia da: aldizkari ofizialean argitaratu behar da tramite administratiboa. Horrek guztiak lanak atzeratu ditu, eta, oraindik hasi gabe daude, larrialdiko prozedura eman ez diotelako, besteak beste.

Ia ezinezkoa izango da hurrengo ikasturtea hasterako prest egotea Zumaburu, eta, horregatik, irtenbide bat eskatu dute gurasoek. Udalbatzarrek

onartutako mozioaren arabera, udal gobernua konprometituko da Hezkuntza sailarekin hitzarmen bat sinatzera, administrazio horrek ikasleen eta irakasleen beharretara moldatuko diren zentroak utz ditzan. Delegaritzarekin batera, Lasarte-Oriako Udala saiatuko da psikomotrizitatea lantzeko gelak eskaintzen. Eta ikasleen sarrera eta irteera orduetan, Udaltzaingoa present egongo da zentro horietan, ikasleen segurtasuna bermatzeko trafiko handiko guneetan.

Udalean ordezkariak duten talde guztiek sostengua erakutsi diete gurasoei, aho batez onartuta haien mozioa. Haatik, eztabaidaren unean kritika zorrotzak egin dizkiote elkarri. Batez ere, EAJko ordezkariengan jarri dute arreta, Eusko Jaurlaritzako alderdia izateagatik. Estitxu Alkorta zinegotzi jeltzaleak ez du Hezkuntza saila "justifikatu" nahi izan, baina adierazi du Lasarte-Oriako Udala eta Eusko Jaurlaritzako "ahal duten guztia" egiten ari direla. "Zilegia da eskatzea zentroa irailerako prest egotea, baina ezinezkoa da". Alkortak beste alderdiei leporatu die udalbatzarra erabiltzea "etekin politikoa" ateratzeko.

EH Bilduko Pablo Barrio bozeramaileak, ordea, Gasteizko politikak jarri ditu jo puntuan: "Badakigu denentzako nahiko dirua ez dagoela, baina dirua egon badago. Lehentasunak

ezartzea da kontua". Gipuzkoan bultzatu diren beste azpiegitura erraldoiak jarri ditu politika mota horren adibide: "AHT, erraustegia... EAJk eta PSOEk jartzen dituzte lehentasunak".

Udalen eskumenak

Udalaren eskumenez ere hitz egin dute udalbatzarrean, Ahal du Lasarte-Oria taldearen ekimenez. Alderdiak mozio bat aurkeztu du, 2017. urterako Estatuaren aurrekontu orokorren 27. eta 35. xedapenak ezabatzea eskatzeko. Hain zuzen, xedapen horiek mugak jartzen ditu administrazio publikoetan langileak hartzeko. PPko zinegotziak ez beste guztiek onartu dute taldearen mozioa. PPko Alejandro Saenzen ustetan, xedapen horiekin saihestu egiten da udala "funtzionario publikoz puztea". Haren hitzetan, beharrezkoa da erakunde publikoen giza baliabideak "optimizatzea", herritarrek "gehiago ordaindu behar ez izateko".

Ahal du Lasarte-Oriaren arabera, neurri hori legez kanpokoa da, eta herriko lan eta zerbitzu publikoen zuzeneko kudeaketa eragozten du.

Gainerako alderdiek babestu egin dute mozioa. EH Bilduko Barriok PPko zinegotziari erantzun dio: "Udala ezagutzen duen orok badaki ez dagoela funtzionarioz puztuta". Lege horien helburua salatu du koalizioak: "Zerbitzu publikoa pribatizatu nahi dute".



Lasarte-Oriako PSE-EEko egoitzan agertutako pintaketak . PSE-EE

Pintaketan aurka, aho batez

Larrialdiko prozeduran mozio bat aurkeztea onartu dute, PSE-EEko egoitzan joan den ostiralean agertutako pintaketan aurkakoa. Beste hainbat herritan ere agertu dira pintaketak. Aho batez egin dute alderdi guztiek sozialisten egoitzaren erasoaren aurka.

PSE-EE ren programa, "aurrera" bi urtean

Asteartean bete zituen PSE-EE-k bi urte udal gobernura lehen indar gisa sartu zenetik, eta, denbora horretan herriarentzat egindako lanaren balorazioa egin zuen Jesus Zaballosek alkateak, asteazkenean, Lasarte-Oriako Herriko Etxean

Maddi Noriega

"Bi urte igaro dira jada Lasarte-Oriako PSE-EE alderdia alkatetzara bueltatu zenetik, eta justiziazkoa zein beharrezkoa da denbora honetan egindakoa herritarrei jakinaraztea". Hitz horiekin hasi zuen prentsaurrekoa Jesus Zaballosek alkateak, asteazkenean. 2015. urteko hauteskundeetarako PSE-EE alderdiak aurkeztutako programa, "nahiko zabala" da, Zaballosek hitzetan. "Guztira, 147 proposamen jaso genituen. Horietatik, gaurdaino, 94 gauzatu dira; 37 burutzeko prozesuan daude; eta 16, berriz, egiteke daude. Bi urtetan, buelta eman eman ahal izan diogu gure herriari, eta, herritarrek egoera hobetu ahal izan du horrek", gaineratu zuen alkateak.

Hitz hauei jarraiki, herriaren alde hartutako konpromisoen berri eman zuen.

Atsotakarren egin asmo duten kirol ekipamendu berria izan zuen lehen hizketagai. Horrela, egun Michelingo kirol guneko atletismo pistak kendu, eta, gune berri horretara lekualdatuko dituzte (errugbi eta futbol zelaiak ere izango ditu). Zaballosek nabarmendu zuen proiektu hori Lasarte-Oriako kirol-zerbitzu osoa hobetzeko "ezinbestekoa" dela.

Hirigintza eta obrei dagokienean, Buenos Aires aldapako, Andatza plazako, Oria plazako eta Nagusia-Askorena-Goikaleko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko egindako eraberritze lanak aipatu zituen gero, baita Atsotakar auzoan estaltzeardauden 256 metro karratuko gunea ere.

Etxebizitzaren gaia jorratu du jarraian, eta, PSE-EE-ren bi urteko legegintzaldian, babes ofizialeko 84 etxebizitza eraikitzeke agiriak onartu dituztela jakinarazi du. Horretaz gain, erabiltzen ez diren merkataritza-etxabeak etxebizitza bihurtzea ahalbidetzen duen ordenantza onartzearekin batera,



Herriko Etxean egin zuen agerraldia, asteazkenean, Jesus Zaballosek. TXINTXARRI

hutsik dauden udalaren etxebizitzak alokairuan jartzeko Alokabide erakundearekin negoziatzen ari dira.

Ingurumena izan da balorazioarako hurrengo puntua, eta, legegintzaldiko bi urteko epealdian gauzatutako bi proiektu ekarri ditu gogora Zaballosek; Arrain hazkuntzarako faunaren behatokia, batetik; eta hondakin organiko gaika biltzeko herriar jarritako 5. edukiontzi marroia, bestetik.

Zerbitzu publikoen inguruan ere mintzatu da. Horrela, asfaltatze kanpainarekin lanean jarraitzen dutela nabarmendu du; aurten Loidi kalea, Arranbide 8-10, eta Goikale 19-21 asfaltatu dira, baina udalerrira asfaltatzen amaitzeko, hiru urterako plana martxan dute.

Biyak Bat helduen egoitzari dagokienean, eraikuntzaren isolamendu termikoa eta akustikoa hobetzeko, leihoak aldatzen ari direla esan du. Horrekin batera, Landaberri Ikastolako Garaikoetxea eraikineko leihoak ere aldatuko dituztela aurreratu du, eta, horrekin batera, bi komun publiko ezartzeko lanak ere esleitu dituztela ziurtatu du.

Herriko auzo ezberdinetan urritasuna duten haurrentzat egokitutako haur-jolas berriak jarri dituzte. Michelingo kirolguneko aldageletatik zetozen iragazketak ere konpondu dituzte, eta horrekin batera, udal kiroldegiko makinaria ere berritu dute, herriko argiztapena berritzearekin batera.

Sozio-ekonomiari dagokionean, Guztion Lasarte-Oria programaren bitartez, hondatutako hormak eraberritu dira, eta merkataritza zein ostalaritza sustatu asmoz, zenbait ekimen ere egin dira.

Gizarte zerbitzuei dagokienean, Atsotakar egoitzaren kudeaketaz Aldundia arduratuko da uztailearen 1etik aurrera, udalarekin hitzarmen bat sinatu ostean. Horrekin batera, etxeetan eta saltokietan soberan gelditutako elikagaiak beharrak dituzten herritarrekin partekatu asmoz, hozkailu solidarioa ere martxan da. Pobrezia energetikoari aurre hartzeko, hitzarmena sinatu du udalak hainbat energia etxerekin, eta, DYA erakundearekin batera, etxetik ateratzeko arazoak dituzten adineko pertsonen laguntzeko Herri Bizi zerbitzua ere sortu dute, besteak beste.

NEURE KABUZ



ANE LABAKA

Plaza

Astelehen arratsaldea zen, arratsaldeko 16:00ak inguru. Aralar plaza gainezka zegoen Lasarten. Ume eta gazte pila zebilen hormetan, aulkietan, eskaileretan... arintasunez jauzika eta txiribuelata. Beste hainbeste ume eta gazte harrituta beraiei begira, helduren bat ere bai tartean.

Kasualitatez tokatu nintzen parean, zer gertatzen ari zen ondo ez nekiela. Lehenago ere nire irakasle lanagatik ezagutzen ditudan ikasleei esker nuen *parkour* izenekoaren berri. Etxe aurreko parkean ikusi izan ditut zenbait lurrean koltxoak jarri eta salto ezberdinak praktikatzen eta badakit egungo gaztetxoek idolatratzen dituzten *youtuber* askok milaka ikustaldi izaten dituzten *parkour*-reko bideoak jarri ohi dituztela sarean zintzilik.

Beste behin ere, beraiek nik baino gehiago jakingo zutela iritzita, ezagunak zitzaizkidan gaztetxo batzuegana hurbildu eta galdezka hasi nintzaian. *Parkour* topaketa moduko bat egiten zela jakinarazi zidaten eta herririk herri horrelakoak antolatu ohi direla azkenaldian. "Beti hainbeste jende mugitzen da?", galdetu nien jarraian, eta gogoratzen ez ditudan izen-abizen pare botata aipatu zidaten astelehenekoa berezia zela, Espainia mailako *parkour*-lari onenak eta Euskal Herri mailakoak sare sozialen bidez jakinarazi zutelako bertan izango zirela. Ekidin ezin izan nuen galderak ihes egin zidan ahotik orduan: "Eta ez al dago *parkour*-a egiten duen neskari?". "Bai, egongo dira...", erantzun zidan mutiko batek nire galderari garrantzia berezirik eman gabe, ezaxola.

Eta nire begiek aldatzea kostako zaigun irudi bat ikusi zuten beste behin. Plaza bat gizonezkoz beteta, eta hamarnaka neskato plazaren ertzetatik begira argazki ederrenak noiz aterako, eta erdiguneko protagonista horietakoren batek sinadura bat noiz emango zain.

LH eta DBHko gazteak Arcachonera joango dira hilaren 26an

Arcachonoko ur-parkera irteera egingo dute ekainaren 26an Lasarte-Oriako gazteek. Ttakun Kultur Elkartek antolatuta, egun osoko ekintzan parte hartzeko aukera izango dute herritar gazteenek.

08:30ean irtengo dira hipodromo etorbideko zubitik, eta, 20:30ean leku berera helduko dira.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, eguneko bazkari eta merienda, txankletak, bainujantzia, toalla, eguzkitako-krema eta osasun txartela eraman beharko du gazte bakoitzak.

Izena ematea beharrezkoa da, plazak mugatuak baitira; horretarako, Ttakuneko bulegora gerturatu beharko dute.

Prezioei dagokionean, bi kuota finkatu dira; Ttakuneko bazkideentzat 42 euro, eta ez-bazkideentzat, berriz, 45 euro.

NOAOA
BIDAIAK

Lasartetik irteera
Noaoaren laguntzarekin

POLONIA
Abuztuaren 29tik
irailak 5 arte

Tel: 943 373 613 • info@noaoa.eus • www.noaoa.eus
Hipodromo Etorbidea 10, 20160 LASARTE-ORIA



Gose grebalariek, Donostiako Easo plazan, aste honetan. ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA

Astebetetz baraurik, erraustegiaren aurka

Sei lagunek astebeteko gose greba hasi dute, erraustegiaren aurka protesta egiteko. Dei egin dute grebalariei elkartasuna adiearaztera Donostiako Easo plazan

Txintxarri

Beste maila batera igo da erraustegiaren kontrako protesta. Nahiz eta milaka eta milaka herritarrek haien desadostasuna plazaratu duten, proiektuak aurrera jarraitzen du, eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak pauso gehiago eman ditu: astebeteko gose greba hasi zuen sei pertsonako herritar talde batek asteazkenean. Donostiako Easo plazan egin dute protesta, eta herritarrei dei egin diete grebalariei sostengua ematera joateko. Arratsaldero hitzaldiak antolatu dituzte, eta dokumentalak ikusi ahalko dira.

Larunbat eguerdirako, giza kate bat antolatu dute, eta Easo plazatik Gipuzkoa plazarako bidea egingo dute. Gose greba egungo kontsumoaren inguruan arreta deitzeko abiatu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. "Naturaren baliabideak mugatuak dira, ezin dugu hazkunde faltuan sinetsi". Klima aldaketa sahiesteko, beharrezkoa deritzo "norberak

bere txikitik" konpromisoak hartzeari. Ohiturak aldatu behar direlakoan dago mugimendua, "aztarna ekologikoa gutxitzeko eta aberastasun soziala banatzeko".

Gainera, mugimenduak aldarrikatu du espazio publikoak erabiltzeko eskubidea. Izan ere, plataformak salatu du Donostiako Udalak adierazpen askatasunari oztupoak jarri dizkiola, plaza publikoaren erabilera debekatzen. "Herri mobilizazio hau kalean egingo dugu".

Erraustegiaren eztabaida bizi-bizirik dagoela aldarrikatu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. "Markel Olanok esandakoaren aurka, erraustegiaren inguruko eztabaida ez da bukatu".

ARRAZOIZKO KONTSUMOAZ OHARTARAZTEKO ASMOA DUTE GOSE GREBALARIEK

Plataforma osatzen duten elkarteek ohartarazi dutenez, ez diote protestatzeari utziko, "azken herritarra informatuta egon arte". Mugimenduak salatu duenez, Zubietan eraikitzen hasi diren erraustegia klase politikoaren eta multinazionalen arteko "sinbiosia" da. "Medikuek ohartarazi dute erraustekak minbizia eta beste gaixotasun asko sortzen dituela, airea, ura, nekazaritzako lurra eta abeltzaintza kutsatzen dituela". Swap izeneko produktu finantzieroak ere aipatu ditu mugimenduak: mailegu horien interes altuak pagatu behar dituzte orain erakunde publikoek. "Herritarren dirua oparitzen ari dira".

Gipuzkoako hainbat herritan abiatu dituzte birziklatzeko egitasmoak, eta, lortu dute hondakinaren %80 inguru birziklatzea. "Zeini arraio eman diote erraustegia egiteko kontratua? Zergatik?", galdetu du mugimenduak.

Mugikortasuna hobetzeko ideiak, ikasleen eskutik

'Agenda 21'-aren harira, Sasoeta-Zumaburuko eta Landaberriko ikasleek ideiak partekatu partekatu dituzte

Martin Vicioso

Mugikortasun jasangarrian urratsak emate bidean, zenbait proposamen egin zituzten pasaden ostiralean Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako ikasleek. *Agenda 21* egitasmoaren barneko ekintza honetan, gaztetxoek euren ideiak partekatu zituzten alkate Jesus Zabalosen, Hezkuntza zinegotzi Maite Iglesiasen eta Hirigintza zinegotzi Agustín Valdiviaren aurrean.

Sentsibilizazio kanpainak duten garrantziaz ohartarazi zuten.

Modu horretan, auto partikularren erabilera murriztu eta garraio publikoaren erabilera handitu daitekeela nabarmendu zuten.

Irsgarritasuna hobetzeko hainbat proposamen luzatu zizkieten Udala Gobernuko kideei: zenbait tokitan espaloioak zabaltzea eta oinezkoak oztopatzen dituzten ibilgailuen eta terrazen inguruko araudia betearaztea, esaterako.

Azkenik, euren zentroetako mugikortasuna hobetzeko ideiak partekatu zituzten ikasleek.

Gamusinoen gaua, iristear

Gamusoan gauari ekiteko dena prest da Zabaleta auzoan. Gaur, hilaren 16an, prestatuko dute gaualdia Zabaleta Auzolanekoek. 21:00etan hasiko dira kanpin dendak jartzen Zabaletako plazan. 21:30ean afalduko dute -bakoitzak berea eraman beharko du-, eta bideoa ikusi ondoren, 22:30ean hasiko dira gamusinoen bila. Biharamunean txokolatada izango dute gosalteko.



ZABALETA AUZOLAN ELKARTEA



LASARTE-ORIAKO UDALA

Kalbario bidea, konpontzeaz

Kalbario bidean hondoratutako espaloia konpontzeko lanak hasteko prozedura martxan jarri du Lasarte-Oriako Udala, eta laster konponduko dute azpiegitura. Horrela, Construcciones Mariezkurra enpresari adjudikatu dizkiote lanak, 32.345 eurorengatik. Konponketa lanak ekainaren 19an hasiko dituzte, hurrengo astelehenean.



Irati Saez de La Fuente hizlaria, joan den larunbatean, Antonio Merceron egindako hitzaldian . TXINTXARRI

'Zerga iraultzailearen' biktimen "ahantzura"

'Elkarbizi' egitasmoak antolatuta, ETAren jardun armatuaren alor bat aztertu dute Lasarte-Orian: 'zerga iraultzailea'. Irati Saez de la Fuente adituaren esanetan, bortizkeria mota hori sufritu dutenak "zulo beltz batean" bizi izan dira urteetan

Txintxarri

"Zulo beltz bat". Irati Saez de La Fuente irakasleak gisa horretan deskribitu du ETA erakundearen *zerga iraultzailea* sufritu dutenek bizitakoa. Deustuko Unibertsitateko irakasleak "ETAren estorsioa" eta horri lotutako beste hainbat gai jorratu zituen Lasarte-Orian joan den larunbatean, *Elkarbizi*

programaren barruan antolatutako hitzaldian. Hitzaldi horrekin, *Tormentuaren memoria osoaren alde* ikastaroaren hiru saioak amaitutzat eman dituzte. Ganbo Iturri elkarteak abiatu du egitasmo hori, Euskal Herriko iragan hurbila aztertu eta Buruntzaldean elkarbizikidetzaz sustatzeko helburuarekin.

ETAren biktimen artean, *zerga iraultzailea* jasan dutenak nabarmendu ditu De la Saezek. Haren arabera, batzuk biktimen elkarteetan eta erakundeetan partetik babesa izan dute, baina ez da horrela gertatu denekin. "Terrorismoaren biktimak babesteko elkarteak 1990eko hamarkadan sortu ziren, eta pertsona horiek gizartearen

ikusgai bilakatzen hasi ziren. Baina ez zen gauza bera gertatu *zerga iraultzailea* sufritu zutenekin". Jesus Zaballos alkatea present egon da hitzaldian.

Gaian aditua da Saez de La Fuente. Izan ere, *Misivas del terror* (Izuaren mezuak) liburua argitaratu du, eta hor landu ditu erakunde armatuari buruzkoak. "Liburua irakurri duten askok garai horietan bizitakoak gogoratu dituzte; batzuek hobeto erreazionatu dute, eta okerrago besteek. Kontuan eduki behar dugu bizitakoa zenbat eta bortzitzagoa izan, orduan eta zailgoa dela erantzun libre eta etikoa ematea", adierazi du irakasleak.

Gizarteko sektore batzuk garai hartan izanda ko "erantzukizunari" buruz ere jardun du De la Saezek. "Batzen diskurtsoek enpresariei gizatasuna kendu zieten, eta objektu bihurtu zituzten. Kasu askotan, euren biktimizazioaren arduradun bihurtu ziren", salatu du adituak.

Zerga iraultzailearen inguruko datuak ere eman ditu De la

Saezek. Haren arabera, 10.000 pertsona ingururi eskatu zien dirua ETAk. Hori zen taldearen diru iturrietako bat, De la Saezen arabera. "Batez ere enpresariak estorsionatu zituzten, baina baita komertzio txikiak ere".

Hiruko saioa, amaituta

Euskal Herriko iragan hurbilari buruzko hiru saioak amaitu ditu Ganbo Iturrik. Memoria zabaltzea izan du helburu elkarteak, "milaka herritarrek sufritu duten indarkeriaren adierazpen kaltegarriak" ezagutu daitezten.

Lehenengo bi ikastaroak euskal herritarrek segurtasun indarren eskuetan sufritatuko abusu eta gehiegikeriei buruzkoak izan ziren. Lasarte Orian izan zen horiei buruz entzuteko aukera. 1960-2013 urteen bitartean agertutako tortura kasuak aztertu zituen orduan Laura Prego legelariak. Eusko Jaurlaritzaren aginduz, torturak ikertzeko Kriminologiaren Euskal Institutuak izendatutako taldeko kide da Prego.

EUSKAL HERRIKO IRAGAN HURBILARI BURUZKO SAIOAK ANTOLATU DITUZTE 'ELKARBIZI'-N

BIKTIMEN ARTEAN IKUSEZINENAK DIRA "ESTORSIOA" SUFRITU DUTENAK, DEUSTUKO ADITUAREN ARABERA

Hiru urteko ibilbidea

Hiru urteko ibilbidea egin du *Elkarbizi* egitasmoak. 2014. urtean sortu zuten ekimena Buruntzaldea eskualdean. Euskal Herriko gatazka politikoak gizartearen irekitako arrakalak ixtea du helburu proiektuak. Bortizkeriaren aurrean euskal gizarteak izan duen jarrera azaldu nahi du *Elkarbizi*-k, pillean egon diren eztabaideetatik ihes egin gabe. Horretarako, elkarbizitzaren aldeko jardunaldiak eta ikastaroak antolatu dituzte.

Gurpilen eta olatuen artean, motorren burrunba herrian

'Wheels and waves' jaialdiaren harira, motor hotsek hartu dute herria; lasterketak egin dituzte hipodromoan

Txintxarri

Wheels and waves jaialdia egin dute hipodromoan, eta motorren bilgune bihurtu zen herria ordu batzuek asteazkenean. Motorren burrunbek gogor astindu

zuten hipodromoa, hor egin baitzituzten lasterketak motorzaleek.

Asteazken goizean entrenamenduak egin zituzten gidariek, eta arratsaldean ekin zioten lasterketari. *Flat track*

gisa ezagutzen diren frogak egin zituzten.


Bi parte izan dituzte lasterketek. Alde batetik, motor zaharrek lehiatu dute, eta, besteetik, modernoagoek. Jakin-mina piztu du ekitaldiak, eta jende ugari bildu zen gero antolatu zuten erakusketara. Europa osotik etorritako motorzaleek parte hartu dute jaialdian.

Halere, motorrez gain, skate, surf, artea eta musika ditu ardatz jaialdiak. Jaizkibelen eta Pasaian ere egin dituzte frogak.



Asteazkenean egin zuten lasterketaren une bat. TXINTXARRI

*Gidabaimenaren teorikoa euskaraz atera
eta izan saria irabazteko aukera!*



*Dakizuna erabili
ez dakizuna ikasteko*



GIDABAIMENA MERKEAGO LOR DEZAKEZU!!

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain		
BENGOETXEA	Juan Bautista Erro 9	943 59 44 06
MENDI	Agustin de Leitza 11	943 30 06 04
Astigarraga		
OTAMENDI	Zubiondo 14 - LOIOLA	943 45 11 07
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3	943 55 05 34
	Urbietta 7	943 55 34 16
LAGUNAK	Karobieta 1	943 33 14 19
OTAMENDI	Izpizua 1	943 55 35 45
Lasarte-Oria		
MUGICA	Ganbo 1	943 36 22 75
Urnieta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	943 33 41 69
Usurbil		
SOLOZABAL	Irazu 2	943 37 69 36

MERKEAGO ATERATZEA NAHI?

AZKEN TEKNOLOGIAN MURGILDUTA IRUDIEKIN JOLASEAN



HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!!

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordeak

Drain

Gidabaimena EUSKARAZ

ETA HORI GUTXI BALITZ...

ZOKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA 9 SARI BURUNTZALDEAN: TEORIKOAREN BALIOA (400 € GEHIENEZ)

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIREN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek hartuko dute parte zoketan. (Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONDA

AUTOESKOLA

ERROMERIA, IRUDITAN

ROCIOKO GIRO EDERRA LASARTE-ORIAN



Udal ordezkariak, ohorezko ardoarekin topa egin zuten bazkaldu aurretik. TXINTXARRI



Igande goizeko ekitaldia izan zen jendetsuena. On Ramon Uribe-Etxebarria apaizaren meza entzun ostean, Rocioko



Emanaldi ugari eskaini zituzte bertaratutako taldeek. Horietao batzuk, oholtza gainea, irudian. TXINTXARRI



Dantzarako aukera bat baino gehiago izan zituzten erromeriako parte hartzaileek. TXINTXARRI



Ama Birjina Lasarte-Oriako kaleetan barrera erakutsi zuten, Atsobakarrera heldu arte. TXINTXARRI

Musika. Dantza. Umore ona. Algarak. Oihuak. Atsobakarreko gunea festa giroan murgildu da asteburuan. Ez da gutxirako, Semblante Andaluzeko kideek Rocioko erromeria egin dute eta, 24. aldiz. Hamaika ekitaldi antolatu dituzte, horietako asko dantza egitekoak, eta bertaratutakoek eta antolatzaileek primeran pasa dute, beste urte batez.

Larunbatean izan dira han eta hemendik etorritako taldeak oholta gainean, eta horiek ase dituzte herritarren dantza egiteko gogoak. Ume zein helduek jai giroan ospatu dute erromeria. Baita inguruko herrietatik etorri direnak ere.

Igandean egin zuten ekitaldi potoloena, eta, ziurrenik, baita hunkigarriena ere. Tradizioari jarraikiz, hamabietako meza eman dute Arantzazuko Ama Parrokian. Ez da ohiko meza izan. Izan ere, Semblante Andaluzeko abesbatzak eta Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeek parte hartu dute liturgian. Dena On Uribe-Etxebarria apaizaren baimenarekin, noski.

Sermoia entzun ondoren, Rocioko Ama Birjina sorbaldan hartuta irten dira Atsobakarrena. Hori bai, bidean zenbait geldialdi egin dituzte. Udal ordezkariak Atsobakarren zain zituzten ordurako, ohorezko ardoarekin topa egiteko.



Dantzari txikiak ere aritu ziren oholta gainean; irudian Duende Verde taldeko dantzariak. TXINTXARRI



Garal batean, Semblante Andaluz-en dantzan aritzen ziren kideek dantza erakustaldia egin zuten. TXINTXARRI

Sei bikote lehian aurtengo Santa Ana Pala Txapelketan

Aste honetan jokatu dira 2017ko Santa Ana Pala Txapelketako lehenengo bi jardunaldiak. Sei bikotek eman dute izena aurtengo edizioan, eta elkarren kontra jokatu beharko dute bitan. Squash Txapelketaren finalak, berriz, bihar jokatuko dira

Martin Vicioso

Santa Ana Pala Txapelketa ere martxan da dagoeneko. Aurtengo edizioan sei bikotek eman dute izena. Euren artean jokatu dute lehenengo fasean, eta lau onenek finalerdiak jokatu ahal izateko txartela eskuratuko dute.

2016ko irabazle Xenki Astiazaranekin eta Iñigo Arluziagarekin batera, beste hiru bikotek eta bi hirukotek parte hartuko dute. Hiruko taldeek partiduro hautatu beharko dituzte jokatu duten bi palistak.

Hauek dira 2017an txapelaren bila arituko diren bikote eta hirukoteak: Xenki Astiazaran-Iñigo Arluziaga; Jon Pagola-Jesus Ferreira-Alain Etxebeste; Egoitz Salsamendi-Endika Gartzia; Josu Iparragirre-Fernando Martin; Gari Arteaga-Aitzol Irazustabarrena-Axular Iparragirre; eta Haritz Urkia-Jon Pello Artetxe.

Jadanik bi jardunaldi jokatu dituzte bikote guztiek. Final nagusia, ohi bezala, Loidibarren pilotalekuan jokatu da Santa Ana egunez.

Squash Txapelketa, azken txanpan

21 jokalarik eman zuten izena aurtengo Squash Txapelketa Sozialean. 11 jardunaldi jokatu ostean, seik soilik egin zuten aurrera: Iker Cañedok, Gorka



Hamar partidu jokatu dituzte lehenengo fasean. TXINTXARRI

Arretzek, Kinin Calvok, Xabier Azaldegik, Iñaki Garciak eta Imanol Olaizolak.

Bihar jokatu dira aurtengo finalak. Lehenik, 15:00etan, kontsolazio faseko irabazlea nor den erabakiko da. 16:00etan, berriz, hirugarren eta laugarren posturako lehiatuko dira. Neurketa hori bukatu bezain laster hasiko da final handia.

Padel eskolako ate irekiak

Aurten hasi du bere ibilbidea Padelo klubak, oso emaitza onekin. Datorren urtera begira,

herriko gaztetxo gehiagok izena eman dezaten nahi dute. Padel eskolako ate irekiak antolatu dituzte hilaren 26an eta 27an.

Aurrebenjaminetatik hasita, junior kategorian arteko guztiak gonbidatuta daude. Hau da, 1999 eta 2010 urteen artean jaiotako guztiak. Interesa dutenek izen-abizenak eta telefonoa bidali beharko dituzte lasarteoriapadel@gmail.com helbidera.

Bestalde, Ander eta Joseba Rekondo anaiek Gipuzkoako 1go mailako txapelketa irabazi zuten Mons kiroldegian (Donostia).

Letamendi eta Olazagoitia fin Gasteizko mendiak proban

Ekaina egurrean hasi dute herriko mendi lasterkariak: Leitza eta Gasteizko probak egin dituzte.

Txintxarri

Ekaina hastearrekin batera Euskal Herriko mendietan barrena ibili dira Lasarte-Oriako zenbait mendi lasterkari. Pasa den asteburuan Gasteizko mendiak proban aritu ziren Javi Olazagoitia eta Iñaki Letamendi.

Biek bukatu zuten lasterketa gogor hori (63 kilometro ditu luze, eta 2.900 metro inguruko desnibel positiboa). Olazagoitiak zazpi ordu eta 41 minututan osatu zuen ibilbidea. Handik ordu pare batera iritsi zen Letamendi helmugara; 9.48ko denbora egin zuen. Bero egin zuen larunbatean, 30º inguru. Halere, biek osatu zuten proba.

Lasarte eta Olazagoitia, Leitza

Ekaineko aurreneko asteburuan Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa ezaguna (67 kilometro



Irudian, Letamendi (eskubian). I. LETAMENDI

eta 3.600 metroko desnibel metatua) jokatu zuten Jon Lasartek eta Javi Olazagoitiak, klima hotz eta euritsuari aurre eginez. Biak iritsi ziren helmugara: Olazagoitia, 9.30ean, eta 10.18an Lasarte.

Harrobiko taldeak osatu nahi ditu Texas Lasartearrak

Datorren denboraldira begira infantil eta kadete mailetakoko talde bana sortu nahi ditu Texas Lasartearrak. Datorren asteko asteazkenerako antolatu dituzte entrenamendu saioak. Talde horietan aritzeko interesa dutenek Michelingo futbol zelaira joan beharko dute; 18:30ean hasiko dira lanean. Jokalariek ez dute dirurik ordaindu beharko

entrenatzera joateagatik, antolatzaileek nabarmendu dutenez. 2002an eta 2003an jaiotakoei dagokie kadete kategorian lehiatzea; infantiletan, berriz, 2004ekoei eta 2005ekoei.

Ostadar SKTren futbol-eskola

2007 eta 2009 bitartean jaiotako neska-mutilek eta aurtengo eskolan aritu direnek ekainaren 23ra arte eman dezakete izena Ostadarren futbol eskolan, kirol elkartearen bulegoan (Geltoki Kalea, 25), 18:00etatik 20:00etara.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo igerilari alebinek Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute

Larunbata eta igandea. 10:30 eta 16:30. Azken Portu kiroldegia, Irun.

PILOTA

LAU T'ERDIKO TXAPELKETA, EKIALDEKO FASEKO FINALERDIAK

Solano (Intza) - Iribar (Izurun)

Larunbata. 18:30. Michelin pilotalekua.

MENDI LASTERKETAK

T2T ETA T3T

Zenbait herritarrek hartuko dute parte Tolosaldeko 24,5 kilometroko T2T mendi lasterketan eta T3T mendi maratoin.

Igandea. 09:00 eta 09:30. Tolosa.

HERRI LASTERKETAK

AZERI BILA HERRI LASTERKETA

Hainbat herritarrek GD Hernanik antolatzen duen 9 kilometroko Azeri Bila herri lasterketan parte hartuko dute.

Larunbata. 18:30. Hernani.

TXIRRINDULARITZA

FEDERATUAK

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako txirrindulari infantil, kadete eta juniorrak Zumaian, Azpeitian, eta Aiegin lehiatuko dira.

23 URTEZ AZPIKOAK, GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Jira-Bira Grupo Eulen taldean aritzen den Iñigo Altunak Gipuzkoako Txapelketa lehiatuko du.

Larunbata. 16:00. Segura.

ZIKLOTURISTAK

Armando Delgado eta Juan Manuel Prieto herritarrek 200 kilometroko Gasteizko Froga Zikloturistan parte hartuko dute.

Larunbata. 08:00. Gasteiz.

LOKE KIROL ELKARTEA

ERAKUSTALDIK

LOKEko gimnastika erritmiko zein judo alorretako kirolariek urtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute Maialen Chourraut kiroldegian.

Larunbata. 17:00 (gimnastika erritmikoa).

Igandea. 11:00 (judoa).

ATLETISMOA

AUTONOMIA ARTEKO TXAPELKETA

EAEko taldeak deitutako atleta absolutu eta kadeteek autonomia arteko Txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Goiz eta arratsaldea. Ciudad Real eta Lorca.

ARRAUNA

GIPUZKOAKO LIGA

Donostiarrak eta Intza Fernandezek Gipuzkoako Ligako 1. jardunaldia jokatu dute

Larunbata. 11:30. Deustu.



Aurrebenjaminek erakustaldia eskaini zuten guraso eta lagunuen aurrean. BURUNTZALDEA IKT

Txikienek ederki pasa dute festa handian

Buruntzaldea IKT-ko igerilari aurrebenjaminek, benjaminek eta alebinek modu txukunean amaitu dute denboraldia, taldeko festa ospatuz eta Lasarteko XXVIII. saria lehiatuz. Denboraldian zehar ikasitako guztia erakusteko aukera izan dute denek

Martin Vicioso

Urtero legez, Lasarteko Sariarekin amaiera bikaina eman diote 2016-2017 denboraldiari Buruntzaldea IKT taldeko gaztetxoek. Aurrebenjaminek ohiko erakustaldia eskaini zuten, eta benjaminak eta alebinak euren artean eta Hernani KE taldeko igerilarien aurka lehiatu ziren.

Guztira 11 aurrebenjaminek hartu zuten parte. Denek 25 metroko froga burutu zuten, estilo librean. Ikusleen txalo zaparrada jaso ostean, denboraldian zehar egindako lan onaren ondorioz, saritxoak eskuratu zuten.

Alebinak eta benjaminak, bestalde, hainbat probatan lehiatu ziren. 200 metro lau estiloetako txapela Unai G. Somovillak eta Nora Imazek irabazi zuten.

Gaztetxo gehienek amaitutzat eman dute denboraldia herrian egindako festa handiarekin. Dena den, alebin mailako igerilari

batzuek entrenatzen jarraitu beharko dute oraindik. Izan ere, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak dituzte aurretik. Lurrealdekotara sailkatu dira Aintzane Sarobe, Ane Artola, Nerea Santos, Nora Imaz, Unai G. Somovilla, Eneko Elizasu, Pello Ibarгойen eta Iker Felipe. Horieta eskuratutako markak zehaztuko dute nortzuk lehiatuko diren lehiaketa autonomikoan.

San Martzial saria

Infantil eta kadete mailako igerilariak, bestalde, Irungo San Martzial sarian aritu ziren asteburuan, emaitza txukunak eskuratu zuten.

Guztira, urrezko lau domina eta zilarrezko bi irabazi zituzten

IRUNGO SAN MARTZIAL SARIAN LEHIATU ZIREN TALDEKIDEEK URREZKO LAU DOMINA EKARRI ZITUZTEN

Buruntzaldea IKT-ko kideek. Horietako bat, Mikel Esnalek eskuratu zuen, 50 metro tximeleta estiloan, kronoa 25,39 segundutan geratuz.


Leire Martin, berriz, onena izan zen 50 eta 200 metro bizkar estiloetan, eta txapeldunorde 200 metro lau estiloetan. 100 metro tximeletan nagusi izan arren, kanporatua izan zen.

Laugarren urrea Ainhoa Martinek irabazi zuen, 200 metro bular proban. Paula Sevillanok, bestalde, Espainiako Txapelketan lehiatu ahal izateko gutxieneko markak eskuratu zituen.

Lander Sorozabal, Beñat Alkorta eta Xabier Alonso ere txukun aritu ziren.

Ibarburu eta Tolosa, nagusi

Donostriku triatloian lehiatu ziren asteburuan taldekide Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosa. Biek lortu zuten froga irabaztea. Urtean zehar igeriketan soilik lehiatu arren, erakutsi dute bizikletan eta korrika ere trebeak direla.



Beteranoen artean txapeldunorde izan zen Mendibe. ATLETICO SAN SEBASTIAN

Maria Mendibe, Zarauzko Triatloiko ohorezko postuetan

Half distantziako triatloia 11. postuan amaitu zuen lasarteoriatarak. 05.22.19ko denbora egin zuen

Martin Vicioso

Zarauzko Triatloia urteko froga garrantzitsuenetakoa zela nabarmendu zuen Maria Mendibek aurretik egindako elkarrizketa batean, eta lehenengo hamarretan sailkatzea lortu ez bazuen ere, maila ona erakutsi zuen lasarteoriatarak, batez ere bizikletan egindako zatian.

Ibilbidea 05.22.19ko denboran egin zuen eta 11. sailkatu. Galiziako Terras de Lugo taldeko Joselyne Brea gazteak irabazi du aurtengo Zarauzko Triatloia, kronoa 04.42.02an geratuz. Indarrak ondo neurtu zituen,

eta korrika errematatu zuen aurretik egindako lana. Izan ere, azkeneko tarte iritsi aurretik, laugarren postuan zen.

Mendibe, bere aldetik, beteranoen kategorian txapeldunorde izan zen, Estefania Gomezen atzetik.

Trinko taldeko Enaitz Ibarburuk, bestalde, 05:25:59ko marka egin zuen. Taldekide Asier Gorostegik, ordea, ezin izan zuen froga amaitu.

Gorritz markatutako frogak daukate Donostian hilaren 24an –emakumezkoek– eta 25ean –gizonezkoek–.

Asier Pozo, Gipuzkoako txapeldunorde erlojuaren kontra

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kadeteak bigarren denborarik onena egin du Bergarako erlojupekoan

Martin Vicioso

Erlojupekoetan ere bikain moldatzen dela frogatu zuen larunbatean Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Asier Pozok. Txapeldun Xabier Isasak baino hamalau segundu gehiago behar izan zituen txirrindulari lasarteoriatarak sei kilometroko ibilbidea egiteko. Bere adinekoen artean, denborarik onena egin zuen Pozok.

Igandean Oñatin egindako lasterketan, berriz, podiumetik gertu geratu zen, laugarren postua eskuratu baitzuen.



Pozo, podiumean. GIPIZKOAKO FEDERAZIOA

Jose Martijari omenaldia, futbol zelai barrutik

Hainbat urtez sustatu zuen futbola herriko gaztetxoaren artean Jose Martijak, Sasoeta-Saustatxo taldean. Iragan larunbatean emandakoa jaso zuen bueltan: familiak eta hainbat taldeetako jokalariek zelai barrutik omendu zuten herritarra

Iñigo Gonzalez

Beti gure maisu. Hori irakur zitekeen Jose Martijaren ikasle izandako hainbat herritarren kamisetetan. Pasa den asteburuan praktikara eraman zituzten hark urte luzez irakatsitakoak: futbol-txapelketa antolatu eta Lasarte-Oriako zein inguruko hainbat herritatik etorritako gaztetxoei aukera eman zieten futboleko jokatzeko primeran pasatzeko, Martija anaiek hainbat eta hainbat alditan egin bezala. Nekez jaso zezakeen Jose Martija zenak aitortza hoberik: goiz eta arratsalde, baloia apenas egon zen geldirik. Omenaldia, futbol zelai barrutik.

Texas Lasartearra, Beti Ona, Billabona, Vasconia, Antiguoko, Eibar, Corass futbol eskola eta Sanse. Zortzi talde horietako benjamin kategoriako gaztetxoak aritu ziren goiz osoan zehar Michelingo zelaian. Eguzkiak gogor jo zuen, baina ez zen arazo izan: Sasoeta Sasoian elkarteko kideek txozna jarri zuten zelai ondoan, fruta zein pintxo goxo eta edari freskoekin.

12:30ak aldera bukatu zuten benjaminen. Segidan, alebin mailako Ostadar SKTk Eibarrekin neurtu zituen indarrak (3-0 irabazi zuten urdin-beltzek). Hori baino lehen, ordea, Jose



Jose Martijaren ahaideak, futbol txapelketako finalistekin. TXINTXARRI

Martija zenaren familiak omenaldia jaso zuen. Bertan ziren Joseren alargun Nieves Lopez de Luzuriaga, Mikel eta Josu semeak eta Iñaki anaia. Josek eta Iñakik hainbat urte eman zituzten Sasoeta-Saustatxo taldea entrenatzen, herriko

ORERETAKO BETI ONA TALDEA IZAN ZEN TXAPELDUNA: PENALTIAN IRABAZI ZION ANTIGUOKORI

gaztetxoei futboleko jokatzeko aukera emanez. Lore sorta eta Eibar SAD taldeko kamiseta bat jaso zuten. Bizkarrean serigrafiatuta, zuriz, 2 zenbakia, omenaldiaren bigarren edizioagatik, eta Jose Martija. Iragan larunbateko arrakasta ikusita, ez dirudi azken edizioa izango denik.

Goizeko futbol partidak bukatu zirenean, jokalariek gazte guztiak dutxatu eta txarangaren doinuen laguntzaz Jaizkibel plazara joan ziren, erdiguneko hainbat tabernatan gelditu eta gero.

Extremeña, Saustatxo eta Udaberri elkartean bazkaldu eta indarrak hartu zituzten arratsaldeko neurketetarako.

Beti Ona txapeldun

Txapeldunen fasea eta kontsolaziokoa jokatu zituzten benjamin kategoriako zortzi taldek arratsaldean. Beti Ona, Antiguoko, Eibar eta Sanse sailkatu ziren txapeldunenerako; kontsolaziokoa Corass, Vasconia, Billabona eta Texas lehiatu ziren. Arratsaldeko bostak aldera hasi ziren partiduriek guztiak.

Txapelketa fase bakoitzeko finalek itxi zuten. Txapeldunena, Beti Ona eta Antiguokok. Emozioz betetako neurketa izan zen. Arauzko denboran bana berdindu zuten, eta penaltietan erabaki zen dena: Errenteriako

taldea finago ibili zen eta txapeldunen kopa altza zuen. Kontsolazioko txapelketa Billabonak irabazi zuen; 4-3 garaitu zuen Vasconia.

Norgehiagoka guztiak bukatu zirenean, futbol txapelketan parte hartu zuten taldeek kopa bana jaso zuten. Era berean, jokalariek bakoitzak domina bana kolokatu zuten, oroigarri gisa.

Argazkien txanda heldu zen ondoren. Gurasoek telefonoak poltsikotik atera eta omenaldiko une hunkigarriak gorde zituzten memoria txarteletan, kameraren iruditxoak sakatuz etengabe. Martijatarrek ere ez zuten aukera galdu eta familia argazki ederrak atera zituzten. Ez da gutxiagorako: beti gogoratuko dute joan den larunbateko eguna. Eta baita Jose ere, futbol zelai barruan zein kanpoan.

Futbol txapelketako emaitzak

Benjamin mailako zortzi talde jokatu zuten Jose Martijaren omeneko txapelketa, goiz eta arratsalde. Eguerdian, Ostadar SKT eta Eibarreko alebinak aritu ziren: urdin-beltzek irabazi zuten, 3-0.

Lehenengo fasea

- **A multzoa:** Vasconia 2-2 Texas; Antiguoko 5-0 Eibar; Texas 0-5 Antiguoko; Vasconia 1-4 Eibar; Antiguoko 6-0 Vasconia; Eibar 3-2 Texas. **Sailkatutako taldeak:** Antiguoko eta Eibar.
- **B multzoa:** Beti Ona 3-1 Sanse; Corass 2-1 Billabona; Sanse 6-1 Corass; Beti Ona 4-0 Billabona; Corass 0-9 Beti Ona; Billabona 0-9 Sanse. **Sailkatutako taldeak:** Beti Ona eta Sanse.

Kontsolazio fasea

- **Finalerdiak:** Texas 2-2 Billabona (Billabona aurrera, 4-5 irabazita penaltietan); Vasconia 3-2 Corass.
- **Finala:** Billabona 4-3 Vasconia. **Txapelduna:** Billabona.

Txapeldunen fasea

- **Finalerdiak:** Antiguoko 5-0 Sanse; Eibar 1-3 Beti Ona.
- **Finala:** Antiguoko 1-1 Beti Ona (Beti Ona nagusi, penaltietan 2-3 irabazita). **Txapelduna:** Beti Ona.

Dolu-egunak herriko kirol eta kultur eragileentzat

LOKE kirol elkartean tenisa irakatsi zuen urte luzez Xabier Gonzalezek; joan den igandean hil zen

Txintxarri

Egun ilunak ari dira bizitzen herriko kirol eta kultur eragileak. Joan den igandean zendu zen Xabier Gonzalez, 52 urte zituela: tenisa irakasten zuen LOKE kirol elkartean Mariasun

Yurritarekin batera, eta Zero-Sette akordeoi orkestrako lehendakari eta kide ere bazen. Lasarteoriatar ugari gerturatu ziren astelehen arratsaldean San Pedro elizara; azkeneko agurtu zuten herritarra hilea

elizkizunean. 52 urte zituen Xabier Gonzalezek.

1987. urtean sortu zuen Gonzalezek Zero-Sette, Antonio Mercerorekin batera. Orduz geroztik han eta hemen ibili izan da, taldekideekin batera kontzertuak eskaintzen. Joan den larunbatean aritu zen azkeneko, Semblante Andaluz elkartean antolatutako Rocioko erromerian. 2012tik zeraman lehendakari lanetan.

Akordeoa ez zen eskuetan ibiltzen zuen tresna bakarra.



Gonzalez, tenis ikasle batekin. TXINTXARRI

Gaztetatik makina bat alditan hartu zuen tenis erraketa ere. Mariasun Yurritarekin batera kirol diziplina hori irakasten hasi zen SCD Michelin taldean, eta LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkartean gero.

Michelin fabrikari 27 urte zeramatzen lanean. Mekanikaria zen ofizioz.

Ehizan ibiltzea ere gustuko zuen herritarra: Urrietako Santa Cruz elkarteko kidea zen, eta Adarrako guneko ehiza postuen zozketek arduratu zuen.

ZORION AGURRAK



Izadi
Zorionak, Izadi!!
Muxu asko etxeko
printzesarentzat, aita
eta amaren partez!



Lorea
Zorionak printzesa,
zure seigarren
urtebetetzean. Aitaxo,
amatxo eta Oihanaren
partez.
Asko maite zaitugu!!!



Ariane
8 urteko
betaurrekoekin politt
politta zaude! Horrela
jarraitu. Zorionak, zure
familia.



Amets
Ongi etorri Amets!!!
Ekainaren 12an gure
artera etorri zara eta
oso oso pozik
gaudeeee.... Zorionak
eta muxu asko asko
Josu, Lorea eta Amets.
Famili osoaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en: txintxarri.eus/zorionagurra eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean

Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Bulegora

Etor zaituz Txintxarriko bulegora edo deitu 943 37 14 48 telefonora.

SUDOKUA

4	3	8		2		9		
			3		8	7		2
	7		9	5			8	3
3	5		1		9	8	6	
			2	6	5	3	9	
7	6	9		3				1
6	2	7			3			9
9		3			2	6		
			6	9	7	2	3	8

OHARRAK

Patxintxi sariak

Patxintxi lehiaketan 65 urtez gorako pertsona goxo eta maitagarriena aukeratuko dute. Hautagaien zerrenda irekitzeko epea aurreko astean ireki zen. Hauek dira aurkeztu diren hautagaiak. Emakumeak: Mari Angeles Ibaruren; Maite

Irigoiñ; Mari Angeles Uria; Pilar Gonzalez *andereño Pilar*; Apoloni Otxandorena, *Poloni*; Gizonak: Jesus Mari Egizabal; Juan Bereziartua, *txoferra*; Sebastian Etxaniz, *Patxan*; Joxe Belartietia; Exikio Perez; Patxi Etxeberria. Sare sozialen bitartez eman ahal izango da bozka.

Sorgin dantza

Entseguek aurrera jarraitzen dute. Zapiak Ttakun Kultur Elkartearen eta Jalgi kafer antzokian daude salgai. Akrilikoak lau euro balio dute, eta algodoizkoak bederatzi euro.

Horrekin batera, Sorgin dantzako parte hartzaileek eskertuko dute

dantzarietzako ura banatuko duten herritarrak animatzea. Aldez aurretik abisatu beharko dute Ttakuneko bulegoan.

Zikiro afaria

Asteartetik aurrera, sanpedroetako Zikiro Afarirako txartelak erosi ahal izango dira 20 eurotan Jalgi tabernan eta Ttakun Kultur Elkartearen. Ekainaren 28an egingo da aurten, arratsaldeko 21:30ean. Menua honakoa da: zikiroa, postrea eta kopa.

GUTUNA

Aste Berde bat... eta 35 marroi**LASARTE-ORIAKO EH BILDU**

Ohi moduan, Aste Berdea antolatu du Lasarte-Oriako Udalak aurten ere; egun hauetan ari da egiten. "Konekta ezazu naturarekin", da aurtengo mezua. Mikel Laboak kantatzen zuena, azkenean: "Naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea". Bat gatoz, guztiz, mezu horrekin. Naturarekin errespetuzko harremanetan sartzen gara... edo jai daukagu, bai guk, eta bai gure ondorengoek. Koherentzia eskatzen du horrek, ordea. Hain zuzen,

erraustegiaren proiektuarekin, adibidez, udal gobernuan ardurak elkarbanatzen dituzten PSOE eta EAJ alderdiek erakusten ez duten koherentzia.

Ariketa erraza izan da Aste Berdearen aurkezpenean, Parisko Akordiotik aterako zela eta, Jesus Zaballos alkateak Trump bezalako ahobero nazkagarria kritikatzeko. Politikoki zuzenaren barruan sartzen da hori. Edota estetikoki elegantearen barruan. Itxurakerian, alegia. Zeren, eta hor dago kokka, gure udal gobernuak Trumpen logika berberean murgiltzean da praktikan erraustegia

babestean. Gure udalak ez du bat egiten naturarekin. Harrapariaren logikatik sartzen da harremanetan naturarekin: lurratik hartutako baliabideak ustiatu eta berrerabili gabe desagertaraziz. Ekonomia zirkularraren logika baztertu eta aztarna ekologikoa handituz modu horretan. Eta ekonomia zirkularra zer den ez da gehiegi esplikatu behar, gaur eta hemen 5. edukiontzia erabiliz dugun lasarteoriatarrok begi bistan daukagu: sortzen dugun hondakin ia guztia berrerabil daiteke, ez da lurra gehiago ustiatu behar baliabide horiek ziklo produktiboan

berriro sartzeko. Baina, tira, gure PSOE eta EAJko agintariak txanponaren zirkulartasunaren arabera ulertzen dute ekonomia zirkularraren kontzeptua. Trumpek ulertzen duen modu berean. Hori da gainean dugun madarikazioa. Ignorantzia izango balitz bakarrik... Horregatik esaten dugu itxurakeriarena.

Udalak postaz banatu duen orrian bertan esaten denez: "Naturaren zati gara eta gure bizitza naturaren menpe dago". Horrela da. Gu ez gaude naturaren gainetik, zatia gara, eta naturari egiten diogun kaltea gure eta gure ondorengoaren kontra

bueltatuko da. Bueltatzen ari da eta denok ikusten dugu negutegi efektua, adibidez. Baina, tira, Trumpi ez zaio inporta. PSOE eta EAJko buruei ere ez. Hain militanteei eta boto-emaleei ere ez? Zergatik? PSOE k errausketaren kontra egin du estatuko pila lekuetan: Nafarroan, Ourenseko Diputazioan, Madrilgo Udalean, Valentziako Erkidegoan, udal askotan... Zergatik Lasarte-Oriaren ez? Zer zorra daukazue EAJrekin? PSOE, EAJ, txanponak alboan utzi eta egin ezazue lasarteoriatarren alde. Zuen ondorengoaren alde ere egingo duzue eta. Eskertuko dizute.

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

ALOKATU

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. Bi logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649526766

3. BESTELAKOAK

ALOKATU

Garaje marra alokatzen dut Donostian (Ondarretan) 645706658

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren, Golf plazan, Garaikoetxea eskolaren parean. Autoarentzat edo motorarentzat egokia. Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112


JAIOTAKOAK

Luken Zubizarreta Amas. Ekainaren 9an.
Lia Quilez Hernandez. Ekainaren 11ean.
Oier Ruano Garcia. Ekainaren 13an.
Eider Falcon Froiz. Ekainaren 14an.

HILDAKOAK

Joxe Santos Goenaga Zubeldia. Ekainaren 12an.
Milagros Marzana Elorza. Ekainaren 10ean.
Xabier Gonzalez Ubegun. Ekainaren 11n.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 16 LASA
Larunbata, 17 GIL
Igandea, 18 GIL
Astelehena, 19 URBISTONDO
Astearte, 20 ACHA-ORBEA
Asteazkena, 21 GIL
Osteguna, 22 GANDARIAS URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:

Txintxarri erredakzioan

943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutua	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Inigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso, Lorena Lujanbio
Adrian Garcia

Publikitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Seguroa,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa

Xabier Amadoz

Administrataria

Nerea Garciairena

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 16

LASARTE-ORIA Mahai jokoak
Mahai jokoen txapelketak egingo dituzte.

Jubilatuen Elkarte, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Motoen kontzentrazioa

Vespa eta Lambretta motoen kontzentrazioa egingo dute, Euskadiko Scooter Klubak antolatuta.

Jaizkibel plaza, 19:00etan.

ANDOAIN Musika entzunaldia

Andoaingo udal musika eskolako ikasleen teklatu taldeen entzunaldia. *18:00etan.*

USURBIL Antzerki musikatua

Udarregi Ikastolako ikasleek beraiek prestatutako antzerki musikatua egingo dute.

Sutegiko auditorioa, 12:30ean.

USURBIL Kantu-jira

Usurbilgo kantu taldeak emanaldia eskainiko du herriko kaleetan barrena, eta ondoren afaria egingo da.

Mikel Laboa plaza 19:30ean.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Motoen kontzentrazioa

Vespa eta Lambretta motoen kontzentrazioa egingo dute, Euskadiko Scooter Klubak antolatuta.

Okendo plaza, 10:00etan

LASARTE-ORIA Mahai jokoak

Mahai jokoen txapelketa. *Jubilatuen elkarte, 16:00etan.*

LASARTE-ORIA Dantzaldia

Erketz EDT Euskal Dantzari Taldeak emanaldia eskainiko du. *19:00etan, Okendo plaza.*

ASTIGARRAGA Erakusketa

Ikasleek ikasturtean egindako lanak erakutsi, kalean margotu, eta, margolan bat zozketatuko dute.

11:00-13:00tara, kultur etxe atzealdean.



LASARTE-ORIA Erketz EDT euskal dantza emanaldia

Erketz Euskal Dantza Taldeak dantza emanaldia eskainiko du Lasarte-Oriako Okendo plazan, larunbat honetan. Euskal musika eta dantza gozatzeko aukera izango dute lasarteoriarrek asteburuan.

Larunbata 17, Okendo plaza, 19:00etatik aurrera.

ASTIGARRAGA Tailerra

Haurrek eta helduen estanzazio tailerrean parte hartu ahal izango dute.

11:00-13:00tara, kultur etxe atzealdean.

ANDOAIN Dantza emanaldia

Azelain dantza elkartearen kurtso amaierako jaialdia.

19:30ean.

IGANDEA 18

LASARTE-ORIA Motoen kontzentrazioa

Vespa eta Lambretta motoen kontzentrazioa egingo dute, Euskadiko Scooter Klubak antolatuta.

Adarra kalea, 12:30ean.

ANDOAIN Dantza jaialdia

Klaap dantza elkartearen kurtso amaierako jaialdia. *12:00etan.*

ASTELEHENA 19

LASARTE-ORIA Mahai jokoak

Mahai jokoen txapelketa. *Jubilatuen elkarte, 16:00etan.*

ASTIGARRAGA Solasaldia

Simone eta Beauvoir idazlearen

Una muerte muy dulce liburuaren inguruko literatur solasaldia. *Udal liburutegian, 19:30ean.*

ASTEARTEA 20

LASARTE-ORIA Musika kontzertua

Musika Eskolaren kontzertua emango du.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEAZKENA 21

LASARTE-ORIA Mahai jokoak

Mahai jokoen txapelketa. *Jubilatuen elkarte, 16:00etan.*

LASARTE-ORIA Musika kontzertua

Musika Eskolaren kontzertua emango du.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTEGUNA 22

LASARTE-ORIA Jokoak

Pote, igel eta toka jokoak, Jubilatuen Elkarteko kideentzat. *Isla plaza, 16:00etan.*

ANDOAIN Dantza jaialdia

Ainara dantza eskolaren kurtso amaierako dantza jaialdia. *20:00etan.*

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

El sueño de Gabrielle

Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.

Astelehena: 22:00

USURBIL

URBIL

Baywatch: Los Vigilantes de la playa

Ostirala: 15:45, 18:00,
20:15, 22:15, 00:45
Larunbata: 15:45, 18:00,
20:15, 22:15, 00:45.
Igandea: 15:45, 18:00,
20:15, 22:15.

Capitán calzoncillos: su primer película

Ostirala: 15:50, 17:10,
18:15, 19:00.
Larunbata: 15:50, 17:00,
18:15, 19:00, 20:20,
21:10.
Igandea: 15:50, 17:00,
18:15, 19:00.

Déjame salir

Ostirala: 20:30, 22:45,
00:55
Larunbata: 20:30, 22:45,
00:55
Igandea: 20:30, 22:45.

El bebé jefazo

Ostirala: 15:45, 17:45.
Larunbata: 15:45, 17:45.
Igandea: 5:45, 17:45.

Guardianes de la galaxia: vol. 2

Ostirala: 19:45, 23:40.
Larunbata: 19:45, 23:40.
Igandea: 19:45.

La Momia

Ostirala: 15:55, 17:00,
17:50, 19:20, 20:10,
22:00, 22:30, 00:20,
00:50.
Larunbata:
15:55, 17:00, 17:50,
19:20, 20:10, 22:00,
22:30, 00:20, 00:50.
Igandea: 15:55, 17:00,
17:50, 19:20, 20:10,
22:00, 22:30.

La promesa

Ostirala: 21:00.
Larunbata: 21:00.
Igandea: 21:00.

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

Ostirala: 16:50, 19:25,
22:00, 00:35.
Larunbata: 16:50, 19:25,
22:00, 00:35.
Igandea: 16:50, 19:25, 22:00.

Señor dame paciencia

Ostirala: 16:00, 18:15,
20:15, 22:45, 00:45.
Larunbata: 16:00, 18:15,
20:15, 22:45, 00:45.
Igandea: 16:00, 18:15,
20:15, 22:45.

HERNANI

BITERI

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

Ostirala: 22:30,
Larunbata: 19:30, 22:30.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 16:30.



LABURPENA

El sueño de Gabrielle

Zuz.: Nicole Garcia. **Herr.:** Frantzia (2016). **Gidoia:** AJacques Fieschi, Nicole Garcia. **Aktoreak:** Marion Cotillard, Louis Garrel, Àlex Brendemühl, Brigitte Roüan, Victoire Du Bois, Aloïse Sauvage, Daniel Para, Jihwan Kim, Victor Quilichini, Ange Black-Berezyiat, Sören Rochefort, Camilo Acosta Mendoza, Francisco Alfonsín.

Iraupena: 120 minutu.

Ametsak egi bihurtzeko gogoz

Frantzia. 50. hamarkada. Gabrielle (Marion Cotillard) frantziako Provenzako herri txiki batean bizi da. Jose (Alex Brendemühl) izeneko espainiako nekazari jator eta maitagarri batekin ezkontzera behartzen dute bere gurasoek, alaba zainduko duelakoan. Gabriellek ordea, ez du Jose maite, eta, bizitza kendu diotela sentitzen du.

Protagonistak giltzurrunetako gaitza du eta hori sendatzeko asmoz, Alpeetako bainuetxe batetara egiten ditu bisitak. Bertan, Andre (Louis Garrel),

Indotxinako gerran zauritutako tenientea ezagutzen du. Bainuetxeko egonaldian elkar maitemintzen dira, eta, Gabrielleri maitatzeko grina pizten zaio berriz ere. Horrela, Andrekin alde egiteko gogoa sentitzen du, iraganeko bikote harremanetik askatasuna lortzeko gogoz.

Oraingo honetan, bere ametsaren alde borrokatzeko prest dago.

Andoaingo Bastero kulturgunean ikusi ahal izango da *El sueño de Gabrielle* filma asteburu honetan.

BITXIKERIAK

Romina Rios: "Koktel kultura handitzen ari da"

ROMINA RIOS KOKTEL EGILEA

Segoviako Hiria estatu mailako koktel lehiaketa irabazi du, 'trago luze' diziplinan. 32 lehiakideren artean garaile izan zen 'Summer' koktela dastatu daiteke Lasarte-Oriako Lavie-n.



Romina Rios koktel-ontzia eta lehiaketako saria eskuetan.

Gin-tonicaren nagusitasuna arriskuan egon daiteke geroz eta gehiago eskatzen ari diren koktelaren eraginez. Hori dio Romina Riosek, Segoviako Hiria koktel saria besapean duela. Pozik dago esperientziarekin. **Nolakoa da aurkeztutako koktel irabazlea?**

Summer du izena. Nire koktelaren osagaiak ez dira sekretu handia, elementuen konbinazioan dago gakoa. Koktelaren osagaiak dira: rona, St. Jermain, yuzua, jengibre ziropa eta anana zukua. Koktel-ontzian sartu, eta

listo. Esango nuke, *Summer* koktelaren zapore deskribapena honakoa dela: freskagarria kutsu pikante batekin eta ron beltzararen presentziarekin. Nire gomendioa da Lavie-ra etortzea, eta norberak bere hitzez deskribatzea koktelak duen zaporea.

Zer da yuzua?

Aurtengo Gipuzkoako koktel txapelketara ere aurkeztu nintzen eta yuzua da bi txapelketetan errepikatu dudana osagaia. Asiatik datorren zitrikoa da. Mandarina baten antza du kanpotik eta kanpoaldeko azala da fruta horren alderdi estimatuena.

Zein bereizgarri du *trago luzeko* koktel batek?

Orokorrean, *trago luzeko* diziplina batean, alkohol gradu gehiago dituen koktel bat sortzen dugu, aperitibo koktel batekin alderatuta adibidez. Izan ere, konbinaketan, alkohol likido gehiago jaurtitzen dugu.

Konpetentzia gogorra izan zenuen?

Bai. Segovian nire lehenengo aldia zen, baina urte askotan

aurkeztu diren aurkariak nituen eta horrelako txapelketetan tentsioa nabari da. Generoari dagokionez, Gipuzkoako koktel txapelketan ni nintzen emakume bakarra, baina Segoviako lehiaketan zenbakiz parekide ginela esango nuke.

Koktel kulturak gin-tonicarena ordezkatu du?

Ez dakit hala izango den oraingo, baina geroz eta gehiago eskatzen dira koktelak. Nire ustez, arrazoia aniztasuna da. Gin mota asko daude, baina koktel eskaintza ere zabala da. Ez da bat edo beste aukeratu behar. Gure intentzioa bezeroei aukera gehiago ematea da. Gauza berriak probatzeko intentzioarekin datoz asko eta esango nuke gainera, koktel kultura emakumeen artean zabalduagoa dagoela.

Hurrengo erronka?

Segovian irabazle izateagatik, azaroan Gipuzkoa ordezkatu dut Espainiako koktel txapelketan. Ez dut aurkeztuko dudana koktelaren pistarik emango badaezpada...



Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
- GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

693 059 392 • 943 566 640

uraitz@uraitz.com • www.uraitz.com

BULEGOA: Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

Josue

Igeltseritza s.l.

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

☎ 606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net